

Gure baserri eskolan, zerbitzu bat ematen dugu. Ez dugu salmenta kanalik, izan ere, ez baitugu ezer ere ez saltzeko. Pertsonekin ekintza eta bizipen ezberdinak egiteko baserri eskola bat baita.

Gure baserri eskolari buruzko informazioa emateko, web orri bat diseinatuko dugu. Bertan burutuko ditugun ekintzak, ordutegiak, kontaktuak, instalakuntzak, metodologia... agertuko dira.

Web orriaz gain, folietoak eta kartelak ere egingo ditugu, herrietan zehar ipiniko ditugu jendeari gure berri emateko. Horrela jende gehiagori iristeko asmoz. Eta horrez gain, herrietako ikastoletara joango gara gure baserri eskolari buruz hitz egitea. Lehenbizi, gure burua aurkeztuko dugu eta horrekin batera, gure baserri eskolari buruzko aurkezpen txiki bat egingo dugu.